

Basque - Gogoaren Gaizkia Liburu Santuek - Bad Mind Scriptures

Hasiera 26:35 Bi emakumeok oso samingarri gertatu zitzaizkien Isaaki eta Rebekari.

Deuteronomioa 28:65 Herri horien artean ez duzue atsedunik izango, ezta zeuen oinak lasai non pausaturik ere, bihotza ikaraz, begiak tristuraz eta barrua atsekabez beteko baitzikizue Jaunak.

Ruth 1:18 Rutek bere erabakia harturik zeukala ikusirik, amore eman zuen Noemik.

2 Samuel 17:8 Eta gehitu zuen: –Badakizu, zuen aita eta berekin dituen gizonak oso ausartak direla, eta mendian bere umeak ostu dizkioten hartz ama bezain amorratuak daudela. Gainera, gudari iaioa duzu aita eta gaua ez du bere jendearekin batera emango.

Esaera Zaharrak 21:27 Gaiztoen sakrifizioak higuingarriak dira, are gehiago asmo txarrez eskainiak badira.

Esaera Zaharrak 29:11 Zentzugabeak aske uzten ditu bere grina guztiak, zuhurak eutsi eta baretzea lortzen.

Ezekiel 23:17,22,28 Orduan, babiloniarrek etorri egin ziren berarekin oheratzeko eta kutsatu egin zuten beren lizunkeriez; baina haiekin kutsatu ondoren, nazka hartu zien. 22 Beraz, Oholiba, hau diotsut nik, Jainko Jaunak: Horra, zure kontra xaxatuko ditut maitaleak, zuretzat nazkagarri izatera iritsi diren horiek; alde guztietatik ekarriko ditut zure aurka: 28 Honela baitiot nik, Jainko Jaunak: Gorrotagarri eta nazkagarri egin zaizkizun haien esku utziko zaituz;

Ezekiel 36:5 Jakizue ongi, suminaren suminez mintzo naiz beste nazio guztien aurka, Edomen kontra batez ere; pozez gainezka eta mespretxu biziz nire herrialdeaz jabetu baitziren, bertako lurak pipiltzeko.

Ezekiel 38:10 Hau diot nik, Jainko Jaunak: «Egun hartan egitasmo maltzurak bururatuko zaizkizu.

Daniel 5:20 Baina harrokeriaz eta handiustez bete zen, eta erregetzatik eraitsi egin zuten eta bere aintza galdu zuen.

Lukas 12:29 «Zuek ez ibili larri jan-edanaren bila.

Eginak 14:2 Baina sinetsi ez zuten juduek jentilak zirikatu zituzten eta senideen aurka gogo-gaiztotu.

Eginak 12:20 Herodes oso haserre zegoen garai hartan Tiro eta Sidongoekin. Hauek elkar hartu zuten erregeagana aurkezteko, eta, Blasto, erregearen etxezaina, beren alde jartzea lortu ondoren, bakezko konponbide bat eskatu zioten erregeari; izan ere, Herodesen lurraldetik hartzen zuten bizitzeko behar zutena.

Erromatarrei 1:28 Jainkoaren egiazko ezagutza baztertu dutelako, Jainkoak beren pentsaera okerraren menpe utzi ditu, behar ez dena egin dezaten:

Erromatarrei 8:6 Giza grinei jarraitzeak heriotzara darama; Espirituari

jarraitzeak, berriz, bizitzara eta bakera.

Erromatarrei 8:7 Izan ere, giza grinei jarraitzen dietenak Jainkoaren aurkako dira; ez dute nahi eta ez dira ere gauza Jainkoaren legeari jarraitzeko.

Erromatarrei 11:20 Hala da, beren sinesmen-ezagatik moztu zituen, eta zuk zeure sinesmenagatik irauten duzu; ez izan, beraz, harro, eta ibili kontuz.

2 Korintoarrei 10:5 eta Jainkoaren ezagutzaren aurka altxatzen den harropuzkeria oro errausten ditugu, eta giza arrazoiketa oro Kristoren morrontzapean jartzen, berari obedi diezaion;

2 Korintoarrei 11:3 Baina beldur naiz, sugeak bere maltzurkeriaz Eva engainatu zuen bezala, zuen gogoak ere ez ote diren gaiztotuko, Kristorenganako jarrera zintzo eta garbitik aldentuz.

Efesoarrei 2:3 Gu guztiok ere hala bizi izan ginen lehen: geure giza grina txarrei jarraituz, geure grina eta burutapen gaiztoek agindutakoa betez; izatez, guk ere Jainkoaren zigorra merezi genuen, beste guztiek bezala.

Efesoarrei 4:17 Hona, bada, zer esaten eta zinez eskatzen dizuedan Jaunaren izenean: ez zaitezela bizi sinesgabeak bizi diren bezala; buruarinak dira

Kolosarrei 1:21 Zuek ere, garai batean, Jainkoarengandik urruti zeundeten eta haren etsai zineten zeuen egintza txarreatatik.

Kolosarrei 2:18 Ez zaitzatela gaitzets apal-itxuran agertu eta aingeruen kultua atsegin duten horiek; ikuskarietan murgiltzen dira eta beren giza burutapen ergelez harropuzturik dabilta.

1 Tesalonikarrei 5:14 Otoi, senideok: zentzarazi zabar dabiltzanak, eman adore bihozgabetuei, eutsi ahulei, izan eroapen guztiekin.

2 Tesalonikarrei 2:2 ez dezazuela arinegi burua gal, ezta kezkatu ere, Jaunaren eguna gainean duzuela dioen goi-agerpen edo adierazpen edo guk egina omen den gutunen bat dela eta.

1 Timoteori 6:5 etengabeko sesioak; horietan aritzen direnak burua galdutako jendea da, egiaren axolarik gabea; horiek erlijioa irabazpide bihurtzen dute.

2 Timoteori 3:8 Janes eta Jambres aztiak Moisesen aurka jarri ziren bezalaxe, liluratzaille hauek ere, buru usteleko jendea eta sinesmenean porrot egina baita, egiaren aurka jartzen dira.

Titori 1:15 Garbientzat dena da garbi; kutsatu eta sinesgabeentzat, berriz, ezer ez da garbi, beren adimena eta kontzientzia baitauzkate kutsaturik.

Hebrearrei 12:3 Gogora ezazue, bada, bekatarien aldetik halako eraso gogorra jasan zuen hura, adorea galdu eta etsi ez dezazuen.

Santiago 1:8 gogo-bikoa eta bere jokabide guztietan aldakorra delarik.